

FANT
BILBAO 2025

BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOA
FESTIVAL DE CINE FANTASTICO DE BILBAO
BILBAO FANTASTIC FILM FESTIVAL
MAIATZAK 2-10 MAYO

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA
ORGANIZER



Bilbao

FANT 31-SARIAK EMATEKO OINARRIAK

BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOA

2025ko maiatzaren 2tik 10ra

Bilboko Udalak **XXXI. BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOA– FANT 2025** antolatu du. Jaialdia **2025ko maiatzaren 2tik 10ra** egingo da. Jaialdiaren barruan, antolatzaileek **SARI HAUEK** emango dituzte:

1. Sail Ofizialeko film luzerik onenen sariak.
2. Ikusleen saria Sail Ofizialeko film luzerik onenari.
3. Euskal Gidoigileen Elkarteararen saria, Sail Ofizialeko film luzeen gidoirik onenari.
4. Sail Ofizialeko film luzeen zuzendari berritzaileenaren saria, FAS Zineklubarekin elkarlanean.
5. Panorama FANTastikoa Saileko film luzerik onenaren saria.
6. FANTrobia, Ohorezko FANT eta FANTeko Izarra sariak.
7. Euskal Aktoreen Batasunaren saria, FANT-Euskal Film Laburrak Saileko antzezpenik onenari.
8. Sail Ofizialeko eta Panorama FANTastikoa saileko film laburrik onenen sariak.

Horretarako ezarri dira **oinarri hauek**:

1. Epaimahaiaren saria Sail Ofizialeko film luzerik onenari

Jaialdiko SAIL OFIZIALEAN egongo dira edukiarengatik edo gaiarengatik genero fantastikotzat jo daitezkeen, ohiko merkataritza-zirkuituetara sartzeko zailtasunak dituzten (film europarrak, asiarrak, produkzio-etxe independenteak etab.) eta Bilbon estreinatu gabe dauden film luzeak.

Sariok **oinarri** espezifikoko hauen arabera emango dira:

1. Goian aipatutako ezaugarriak betetzeagatik antolatzaileek Jaialdiaren Sail Ofizialaren barruan proiektatzeko hautatutako film luzeen artetik aukeratuko dira sarituak
2. Saria filmaren zuzendariarentzat izango da, ohorezkoa, eta garaikurra emango zaio, baina dirurik ez.
3. Sari hau ezin da ex aequo eman eta ezin da eman barik geratu.
4. Epaimahaiak film luzerik onenari ematen dion sariaren irabazlea aukeratzeko, adituen epaimahaia arituko da. Adituak Jaialdiko Zuzendaritzak proposatuko ditu eta Bilboko Udalaren Kultura eta Gobernantzako Zinegotziak izendatuko ditu.
5. FANT Jaialdiko Epaimahaiko kideen kopurua ez da hiru baino gutxiago izango eta beti izango da bakoitia.
6. Epaimahaiak idazkari bat izango du. Jaialdiko Zuzendaritzak izendatuko du, eztabaidetan parte hartuko du baina ez du botorik izango.
7. FANTeko Epaimahaiak barneko arautegi bat ezar dezake, Jaialdiko Zuzendaritzarekin bat etorrita.
8. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa izango da eta ezin izango da eztabaidatu.

2. Ikusleen saria Sail Ofizialeko film luzerik onenari.

Sail Ofizialeko ikusleek aukeratuko dute saritua. Saiotan parte hartzen duten pertsonak proiektatutako film luzea puntuatzeko aukera izango dute. Puntuazio haztaturik onena duen film luzea izango da irabazlea.

Ikusleen saria Sail Ofizialeko film luzerik onenari pelikularen zuzendariarentzat izango da, ohorezkoa, eta garaikurra emango zaio, baina dirurik ez.

3. Euskal Gidoigileen Elkartearen saria, Sail Ofizialeko film luzeen gidoirik onenari

Euskal Gidoilarien Elkarteak izendatutako adituek osatutako epaimahaiak erabakiko du Sail Ofizialeko film luzeen gidoirik onena zein den. Saria pelikularen gidoiariarentzat izango da, ohorezkoa, eta garaikurra emango zaio, baina dirurik ez.

4. FAS Zineklubaren saria, Sail Ofizialeko zuzendari berritzaileenari

FAS ZINEKLUBAK izendatutako adituek osatutako epaimahaiak erabakiko du Sail Ofizialeko zuzendari berritzaileena nor den. Saria pelikularen zuzendariarentzat, ohorezkoa, izango da, garaikurra emango zaio baina dirurik ez.

5. Panorama FANTastikoa Saileko film luzerik onenaren saria

Panorama FANTastikoa Sailean genero fantastikoko filmak biltzen dira, izaera independentekoak. Horrela, Jaialdiak oraintsuko generoko zinemako joera garrantzitsuenetako bat kontuan hartzen du, ausardia eta independentzia eta zine fantastikoaren ezaugarriak nahasten dituena.

Sail honetan egongo dira, Sail Ofizialean legez, edukiarengatik edo gaiarengatik genero fantastikotzat jo daitezkeen, ohiko merkataritza-zirkuituetara sartzeko zailtasunak dituzten eta, beraz, Bilbon oraindik estreinatu gabe dauden film luzeak. Sail honetan FILM LUZERIK ONENARENTZAKO SARIA ezarri da eta **oinarri** hauen arabera emango da:

1. Jaialdiaren barruan, goian aipatutako ezaugarriak beteta, sail honetan proiektatzeko, antolatzaileek programatutako film luzeen artetik aukeratuko da saritua.
2. Saria filmaren zuzendarientzat izango da, ohorezkoa, eta garaikurra emango zaio, baina dirurik ez.
3. Sari hau ezin da ex aequo eman eta ezin da eman barik geratu.
4. Panorama FANTastikoa film luzerik onena aukeratzeko, adituen epaimahaia arituko da. Adituak Jaialdiko Zuzendaritzak proposatuko ditu eta Bilboko Udalaren Kultura eta Gobernanzako zinegotziak izendatuko ditu.
5. FANT Jaialdiko Epaimahaiko kideen kopurua ez da hiru baino gutxiago izango eta beti izango da bakoitia.
6. Epaimahaiak idazkari bat izango du. Jaialdiko Zuzendaritzak izendatuko du, eztabaidetan parte hartuko du baina ez du botorik izango.

7. Panorama FANTastikoa saileko Epaimahaiak barneko arautegi bat ezar dezake, Jaialdiko Zuzendaritzarekin bat etorrira.
8. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa izango da eta ezin izango da eztabaidatu.

6. FANTrobia, Ohorezko FANT eta FANTeko Izarra sariak

FANTROBIA saria ohorezkoa da. Zinema fantastikoaren generoan azken aldiaren gorantz doan pertsona bati emango diote antolatzaileek. Garaikurra emango zaio irabazleari, ez dirurik.

Era berean, antolatzaileek beste bi sari eman ahal izango ditu generoko pertsona garrantzitsuentzat, kasu honetan jada finkatuta daudenak. Ohorezko FANTen saria izango da estatuan nabarmendu diren pertsonentzat, eta FANTen Izarra saria, nazioarteko ibilbidea duten pertsonentzat.

7. FANT-Euskal Film Laburrak Saileko antzezpenik onenaren saria

Euskal Aktoreen Batasuna Elkarteak izendatutako adituek osatutako epaimahaiak erabakiko du FANT-Euskal Film Laburrak Saileko antzezpenik onena zein den. Saria sail honetako film laburretako aktore bati emango zaio. Ohorezkoa izango da eta garaikurra emango zaio baina dirurik ez.

8. Film laburrei emandako sariak

“FANT LABURREAN” izenekoaren sailetan sari hauek ezarri dira FILM LABURRIK ONENENTZAT:

- FANTeko Sail Ofizialeko film laburrik onenari (atzerrikoa, Estatukoa zein Euskal Herrikoa) epaimahaiak emandako saria.
- FANTeko Sail Ofizialeko film laburrik onenari (atzerrikoa, Estatukoa zein Euskal Herrikoa) ikusleek emandako saria
- FANTeko Sail Ofizialeko euskal film laburrik onenari epaimahaiak emandako saria
- FANTeko “Panorama FANTastikoa Laburrean” izeneko saileko film laburrik onenari epaimahaiak emandako saria

Antolatzaileek aukeratuko dituzte edukiarengatik edo gaiarengatik genero fantastikotzat jo daitezkeen film laburren artean, Jaialdiko “FANT LABURREAN” sailtako sarierako hautagaiak. Sail hauetan parte hartzeko, filmak ez dira izango 30 minutu baino luzeagoak.

FANTBilbao Méliès Nazioarteko Jaialdien Federazioko (MIFF) kidea da, eta, beraz, genero fantasiazko film labur europar bat izendatzen du deialdi bakoitzean, Urrezko Méliès saria jasotzeko aukera izan dezan:

ZILARREZKO MÉLIÈS SARIA sail ofizialeko Europako Fantasiazko Film Labur Onenari, Europako Fantasiazko Zinemaldien Federazioaren URREZKO MÉLIÈS sarirako lehiarako sailkatzen duena www.melies.org

8.1. Epaimahaiaren sariak FANT LABURREAN Sail Ofizialeko film laburrik onenari eta euskal film laburrik onenari

Hauek dira **EPAIMAHAIK “FANT LABURREAN” SAIL OFIZIALEKO FILM LABURRIK ONENARENTZAT** eta **EUSKAL FILM LABURRIK ONENARENTZAT** emango dituen **SARIEN oinarri espezifikoak**:

1. Ezarritako eran eta epearen barruan jasotako filmen artean goian aipatutako ezaugarriak betetzen dituztelako “Fant Laburrean” Sail Ofizialean proiektatzeko antolatzaileek hautatuako film laburren artetik aukeratuko dira sarituak
2. Film laburrik onenarentzako saria **3.000 €**-koa izango da eta euskal film laburrik onenarentzako saria **2.500 €**-koa. Diru-kopuru horiei, indarrean dauden arau fiskalekin bat etorrira, nahitaezkoak diren atxikipenak aplikatuko zaizkie. Biekin, gainera, garaikur bana emango da. Diru-kopuruaren erdia zuzendariarentzat eta beste erdia filmaren ekoizlearentzat izango da, baina azken horri ordainduko zaio bere osatasunean ordainketa bakarrean. Ekoizletzat hartuko da izena emateko fitxan inskribatuta dagoen pertsona. Ekoizlea eta zuzendaria pertsona bera badira, sariaren kopuru osoa emango zaio. Garaikurra zuzendariari emango zaio.
3. Sariak ezin dira ex aequo eman eta ezin dira eman barik geratu.
4. Film labur onenak Sail Ofizialeko film luze onena hautatuko duen epaimahaiak aukeratuko ditu, eta sari honen oinarrietako arau berberak beteko dira.

8.2. Ikusleen saria 2023ko FANTeko Sail Ofizialeko film laburrik onenari

Hauek dira **“FANT LABURREAN” SAIL OFIZIALEKO FILM LABURRIK ONENARI IKUSLEEK** emango dioten **SARIAREN oinarri espezifikoak**:

- 1.- Ezarritako eran eta epearen barruan jasotako filmen artean goian aipatutako ezaugarriak betetzen dituztelako “Fant Laburrean” Sail Ofizialean proiektatzeko antolatzaileek hautatuako film laburren artetik aukeratuko dira sarituak.
- 2.- Saria **3.000 €**-koa izango da eta diru-kopuru horri, indarrean dauden arau fiskalekin bat etorrira, nahitaezkoak diren atxikipenak aplikatuko zaizkio. Gainera, garaikurra emango da. Diru-kopuruaren erdia zuzendariarentzat eta beste erdia filmaren ekoizlearentzat izango da, baina azken horri ordainduko zaio bere osatasunean ordainketa bakarrean. Ekoizletzat hartuko da izena emateko fitxan inskribatuta dagoen pertsona. Ekoizlea eta zuzendaria pertsona bera badira, sariaren kopuru osoa emango zaio. Garaikurra zuzendariari emango zaio.
- 3.- “FANT Laburrean” Saileko saioetara joaten diren ikusleek aukeratuko dute film laburrik onena. Saioetan parte hartzen duten pertsonen saio bakoitzeko film laburra aukeratu ahal izango dute. Puntuazio haztaturik onena duen film laburra izango da irabazlea.
- 4.- Aurreikusitako ez diren gorabeherak antolatzaileek ebatziko dituzte eta haien erabakia behin betikoa izango da eta ezin izango da eztabaidatu.

8.3. Epaimahaiaren saria FANTeko “Panorama FANTastikoa Laburrean” Saileko film laburrik onenari

“Panorama FANTastikoa Laburrean” Sailean genero fantastikoko filmak biltzen dira, izaera independentekoak. Horrela, jaialdiak oraintsuko generoko zinemako joera garrantzitsuenetako bat kontuan hartzen du, ausardia eta independentzia eta zine fantastikoaren ezaugarriak nahasten dituena.

Sail honetan egongo dira, Sail Ofizialean legez, edukiarengatik edo gaiarengatik genero fantastikotzat jo daitezkeen eta ohiko merkataritza-zirkuituetara sartzeko zailtasunak dituzten film laburrak. Sail honetan FILM LABURRIK ONENARENTZAKO SARIA ezarri da eta **oinarri** espezifikoko hauen arabera emango da:

1. Jaialdiaren barruan, sail honetan proiektatzeko, antolatzaileek programatutako film laburren artean aukeratuko da saritua.
2. Saria **1.750 €**-koa izango da eta diru-kopuru horri, indarrean dauden arau fiskalekin bat etorruta, nahitaezkoak diren atxikipenak aplikatuko zaizkio. Gainera, garaikurra emango da. Diru-kopuruaren erdia zuzendariarentzat eta beste erdia filmaren ekoizlearentzat izango da, baina azken horri ordainduko zaio bere osatasunean ordainketa bakarrean. Ekoizletzat hartuko da izena emateko fitxan inskribatuta dagoen pertsona. Ekoizlea eta zuzendaria pertsona bera badira, sariaren kopuru osoa emango zaio. Garaikurra zuzendariari emango zaio.
3. Sariak ezin dira ex aequo eman eta ezin dira eman barik geratu.
4. “Panorama FANTastikoa Laburrean” saileko film onena epaimahaiak aukeratuko du, “Panorama FANTastikoa” Saileko film luzeak onena aukeratzen duen epaimahai berberak eta arau berberak jarraituta.

9. Euskarazko film laburraren proiekturik onenarentzako sari berezia

1. Helburua.

Sari honen helburua da genero fantastikoko euskarazko film laburrak ekoizten laguntzea, irabazleei film labur bat egitea erraztuz.

2. Parte-hartzaileak.

Sari hau eskuratu ahal izango dute erregistro publikoetan, zinema-eskoletan edo antzeko erakundeetan ekoizle gisa izena emana duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek.

3. Baldintza teknikoak.

- a) Parte-hartzaile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu, gehienez.
- b) Film laburren gehieneko iraupena 20 minutukoa izango da.

4. Izen-ematea.

Parte hartu nahi dutenek 2025ko martxoaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dituzte proiektuak. Parte-hartzaileek prestatutako formularioa bete eta bertan azaldutako dokumentazio guztiarekin fant@fantbilbao.eus helbidera bidali beharko dute.

5. Proiektuaren defentsa.

Proiektuak bidali ondoren, aurkeztu eta defendatu egin beharko dira propio izendatutako epaimahai espezializatu baten aurrean, FANT 30 jaialdiaren jendaurreko saio batean.

6. Saria.

Sari bakarra emango da. Hautatutako proiektuak 5.000 €-ko saria jasoko du. Kopuru horri, hala badagokio, indarrean dauden arau fiskalak aplikatuz nahitaezkoak diren atxikipen fiskalak egingo zaizkio.

7. Parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute FANT jaialdiaren hurrengo edizioan estreinatzeko film laburra, edo, salbuespen gisa, jaialdiaren antolakuntzarekin adostuko den beste modu batean estreinatzeko.

8. Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

FILM LUZEEN SAIL OFIZIALEAN, "FANT LABURREAN" KATEGORIAKO SAIL OFIZIALEAN ETA PANORAMA FANTASTIKOKO SAILETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

1. Film luzeen Sail Ofizialean, "FANT laburrean" kategoriako Sail Ofizialean eta Panorama Fantastikoko Sailetan parte hartzeko, enpresek edo zuzendariek pelikulak inskribatzeko eskaria egin beharko dute.
2. Inskripzioa egiteko horretarako dagoen inprimakia bete behar da datu hauekin: jatorrizko herrialdea, filmaren laburpena, zuzendariaren biografia eta filmografia, filmaren elkarriketen testu osoa eta argazkiak. Testuek euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzita egon behar dute.
3. Pelikulak Jaialdiko Programazio Batzordeari aurkezteko biderik errazena hauxe da: sareko galde-sorta bete (www.fantbilbao.eus) eta filma Movibeta Festival (www.festival.movibeta.com) edo FestHome (www.festhome.com) web-orriak erabilita bidali. Izena emateko eta film luzeak zein laburrak ikuskatzeko materiala bidaltzeko epea **2025ko otsailaren 2ko 23:59an** bukatuko da.
4. "FANT LABURREAN" Sail Ofizialeko film laburrak Blu Ray, DVD, DCP edo Quicktime (.mov / .mkv) formatuan erakutsi ahal izango dira.
5. Film luzeen kasuan, DCP, Blu Ray edo H264 formatuko artxiboak (.mov / .mkv) baino ez dira onartuko.
6. Antolatzaileek Jaialdian eskainiko diren filmak aukeratu eta jakinarazi ondoren, horien kopiak egileei adieraziko zaien posta helbidera bidaliko dira. Horiek identifikazio-etiketa izango dute ondo ikusten den lekuan, datu hauekin: izenburua eta proiektiorako hurrenkera. Era berean, 2025ko martxoaren 15a baino lehen egon behar du antolatzaileen eskura. Antolatzaileenak ez diren arrazoiengatik materiala egun horretarako iristeko moduan ez badago, antolatzaileek film laburraren/luzearen ordezkari 2025ko martxoaren 15ean antolatzaileen esku egongo dela bermatzen duen beste bat aukeratu dezakete; izan ere, egin beharreko probak egiteko beharrezkoa da egun horretarako iristea.

7. FANTek ez ditu onartuko proiektatzeko gutxieneko kalitatea ez daukaten filmak. Aukeratutako filma lagatzen duen enpresak edo pertsonak publizitaterako materiala eman beharko dio Jaialdiari, zabalkundea behar bezala egin ahal izateko (argazkiak, posterrak, prentsako txostenak, aurrerakinak eta abarrak). Gainera, eta beharrezkoa bada, filma azpitolatzeko material egokia eman beharko du. FANTek material horiek ez bueltatzeko eskubidea izango du.
8. Aurrez ezarritako formatuetan emanaldi publikoak egiteko kopiak eta aukeraketa egiteko erabilitako kopiak ez dira modu automatikoan itzuliko. Jaialdia bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan, zuzendariak/ekoizleak horiek itzultzea eskatu beharko du, beti ere bere kontura. Denbora horretan ez badu ezer adierazten, Jaialdiak egoki irizitako eran kenduko ditu.
9. Jaialdiak bere gain hartuko ditu proiektatuko diren kopiak bidaltzeak sortzen dituen garraio-gastuak, kopia hori beste jaialdi batera bidali behar denean izan ezik. Kasu horretan, beste jaialdiak ordainduko du hara bidaltzeko garraio-gastua.
10. Jaialdian proiektatu izanaren ondorioz kopiaren batek kalteren bat edukiz gero, haren jabeak hilabeteke epea dauka, filma berreskuratzen duenetik aurrera, Jaialdiari jakinarazteko.
11. FANTeko antolatzaileek erabakiko dute pelikulak noiz eta zer ordutan proiektatuko diren. Jaialdiko edozein sailetan dauden filmak -jabeak baimena eman barik- ez dira hiru bider baino gehiagotan proiektatuko, prentsarako proiektzioa barne.
12. Film luzea edo film laburra hautatzen bada, jaialdiak beretzat gordetzen du materiala Espainiarako geoblokeatutako online plataforma batean erakusteko eskubidea, eta erakuste hori mugatuta geratuko da jaialdiak irauten duen bitartean (emanaldien edo erakustaldi egunen kopurua mugatu egin daiteke).
13. Filmaren edo trailer faltsuaren zatiak telebistako emanaldietan erabiltzeko grabatu nahi badira, FANTek FIAPFen (Film Ekoizleen Elkarte Nazioarteko Federazioa) arautegian lehiatzeko jaialdi espezializatuertako ezarritakoa beteko du.
14. Jaialdiak baimena eskatuko die saritutako filmen ekoizleei kopia bat Jaialdiko artxiboetan gordetzeko. Kopia hori zinemateketako gordailuen kontratuen arabera erabiliko da. Kontratu hori Filmeko Ekoizleen Elkarte Nazioarteko Federazioak (FIAPF) ezarri du.
15. Filmaren inskripzioa egiteak oinarri hauetako baldintzak onartzea dakar. Oinarri hauen interpretazioa eta aplikazioa Bilboko Udalaren Kultura eta Gobernantza Sailari dagokio, beti ere nazioarteko araudian ezarritakoa betez.

SARIAK ESKUDIRUTAN ORDAINDU AURREKO BALDINTZAK

A. 3.000 euroko saria irabazten dutenek Estatu espainiarreko lurraldean baldin badute egoitza fiskala, saria eman aurretik, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Adierazpen bat. Beraren bidez, eskaera sinatzen duen pertsonak adierazten du ez dagoela Bilboko Udalak egiaztapen egokiak egitearen aurka, eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkala egiaztatzeko (III. ERANSKINA).
- b) Erantzukizunpeko adierazpen bat, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 23.2 artikuluan onuradun izateko ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela adieraziz. Era berean, adierazi behar du ez dagoela Bilboko Udalak egiaztapen egokiak egitearen aurka, eskatzaileak Udalarekin zorrik ez daukala egiaztatzeko (I. ERANSKINA).
- c) Bilboko Udalaren aldetik, kontzeptua edozein izanda ere, inoiz ordainketarik jaso ez dutelako Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonak, "Hartzekodunen Fitxa" behar bezala beteta aurkeztu beharko dute. Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportearen eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

Sariaren bat irabazten duenak **egoitza fiskala atzerrian** badu, a) ataleko dokumentazioa aurkeztu beharrean, "Egoitza Fiskalaren Ziurtagiria", egoitza duen nazioan eskumena duen agintariak egina, aurkeztu beharko du.

B. 3.000 euro baino gutxiagoko saria irabazten dutenek, Estatu espainiarrean egoitza fiskala badute, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinaren bidez ondoko hau ziurtatuko baita: ez dagoela Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikuluan, eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 23.2 artikuluan onuradun izateko aurreikusitako debekuetan; zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla (betebehar horiek uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan ezartzen dira); eta ez dagoela Bilboko Udalak egiaztapen egokiak egitearen aurka, eskatzaileak Udalarekin zorrik ez daukala egiaztatzeko. (II. ERANSKINA).
- b) Bilboko Udalaren aldetik, kontzeptua edozein izanda ere, inoiz ordainketarik jaso ez dutelako Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonak, "Hartzekodunen Fitxa" behar bezala beteta aurkeztu beharko dute. Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportearen eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

Irabazleak **egoitza fiskala atzerrian** badu:

- a) “Egoitza Fiskalaren Ziurtagiria”, egoitza duen nazioan eskumena duen agintariak egina.
- b) Erantzukizunpeko adierazpen bat, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen 23.2 artikulua onuradun izateko ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela adieraziz. Era berean, adierazi behar du ez dagoela Bilboko Udalak egiaztapen egokiak egitearen aurka, eskatzaileak Udalarekin zorrik ez daukala egiaztatzeko. (I. ERANSKINA).
- c) Bilboko Udalaren aldetik, kontzeptua edozein izanda ere, inoiz ordainketarik jaso ez dutelako Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonak, “Hartzekodunen Fitxa” behar bezala beteta aurkeztu beharko dute. Horrekin batera NAN/IFZ/pasaporte eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

ARAUTEGIA

Oinarrietan araututa ez dagoenerako, ordezko izaeraz, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Ordenantza hori 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen Bilboko Udalbatzarrak eta 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen BAOn (138. Zenbakia).